


ARGIAK



| | |
|---|---|
| Pintatu gelak kolore argiz . | € |
| Ikasten edo lanean ari zarenean, idazmahai-luminariak erabil ditzakezu gelako argi nagusia piztu beharrean. | 0 |
| Ordezkatu lanpara zaharrak A+ edo gehiagoko energia- etiketa duten lanparekin. ¹ | € |
| Saihestu bonbilla asko dituzten luminariak, argi-armiarma motakoak batez ere. | € |
| Kanpoan , lorategietan esaterako, gutxi erabili apaintzeko argiak. Beste aukera bat eguzki-energi az elikatutako luminariak erabiltzea da. | € |

Ba al zenekien...

lanpara baten argi-efikazia watt-eko, potentzia elektrikoaren unitate bakoitzeko, igortzen duen lumenetan neurtzen dela? LED teknologiak wateko 125 lumenak gainditzen ditu.

Hodi **fluoreszenteetan, eraginkorragoak** dira T5 motakoak (5 hazbeteko diametroko hodia dutenak) T8 eta T12 tradizionalak baino.


€

Argitu aholkua


Etixerako edozein lanpara erosi aurretik, kontuan izan urrats hauek:

1. Urratsa


Zein **zorro** mota du luminariak?



E27



GU10




G4

¹ Kalifikazio energetikoaren mailakatze berrian A eta G arteko etiketak baino ez daude.

2. Urratsa

Nola proiektatu nahi duzu argia? Lanpararen **formak** argi-fluxuaren norabidea zehazten du.



E27



GU10




G4

3. Urratsa

Zenbat argi behar duzu? Hau da, zenbat **lumen**. Lanpararen potentziaren ondoan egoten da datu hau.

Eraginkortasun baxuagoa

800 lumen - 60W



13
lm/w

800 lumen - 15W



55
lm/w

800 lumen - 10W



80
lm/w

Eraginkorragoa

4. Urratsa


Zein argi mota nahi duzu? Puntu batean ardaztua edo argi orokor homogeneoa eta gelan itzalik sortuko ez duena? **Irekidura-angeluak** argi gehiena non kontzentratuko den adierazten ditu.



120°
60°
35°
15°

5. Urratsa

Zein argi **tonalitate** behar duzu? Argi eroso edo lan egiteko argia?
Kolorearen temperaturak, Kelvin gradutan, argia beroa, neutroa edo hotza den adierazten dizu.



6. Urratsa

Zein **teknologia** aukera dezakezu? Lanpara fluoreszenteak, kontsumo txikiko halogenoak edo aurrezkirik handiena LEDarekin.

| | Goritasun-bonbila | Led-a | Fluoreszente trinko | Halogenoa |
|--|-------------------|----------------------------|----------------------------|----------------------------|
| Lumenak Argi-kopurua | 25 W | 4 W 249 lumen | 7 W 229 lumen | 18 W 217 lumen |
| W | 40 W | 6 W 470 lumen | 9 W 432 lumen | 30 W 410 lumen |
| Potentzia Kontsumitutako energia | 60 W | 9 W 806 lumen | 12 W 741 lumen | 46 W 702 lumen |
| | 100 W | 15 W 1.521 lumen | 23 W 1.398 lumen | 77 W 1.326 lumen |



2012ko irailetik EB osoan debekatuta dago goritasun-bonbillak banatzea.

2016ko irailaren 1etik EB osoan debekatuta dago foku halogenoak banatzea.

Ba al zenekien...

lanpararen irekidura-angelua, gradutan, zenbat eta handiagoa izan, orduan eta argi gehiago egongo dela paretan eta sabaitan?

OINARRIZKO ARIKETA PRAKTIKOA

Formula erraz honekin, bi lanpara moten funtzionamendu-kostua kalkulatu ahal izango duzu potentziaren, piztuta dagoen denboraren eta elektrizitatearen prezioaren arabera.

| Potentzia (wattak) | Potentzia (kilowattak) 1000rekin zatitu | Zenbat denbora dagoen piztuta (ordu eguneko) | Zenbat denbora erabiltzen den (egun urtean) | Elektrizitatearen kostua (kilowatt-orduko €) | Funtzionamendu kostua (€ urtean) |
|--------------------------|---|--|---|--|----------------------------------|
| Lanpara halogenoa | | | | | |
| 35 | 0,035 | 3 | 365 | 0,13 | 4,98 |
| LED lanpara | | | | | |
| 6,3 | 0,0063 | 3 | 365 | 0,13 | 0,90 |

Urtebetean, halogenoaren baliokidea den LED lanparak 4 € baino zertxobait gehiago aurreztuko du. **Zergatik ez dituzu etxean dituzun lanparak zenbatzen eta zure etxea argitzeak dakarren kostu ekonomikoa kalkulatzeko? Zer iruditzen teknologia eraginkorrago bat aukeratzea?**

ARIKETA PRAKTIKO AURRERATUA

Formula erraz honekin bi lanpara moten berritze-kostua kalkulatu ahal izango duzu, horien bizitza baliagarriaren (iraupena) arabera.

| Potentzia (wattak) | Unitate bakoitzeko kostua (€) | Bizitza baliagarria (orduak) | Lanpara zenbat bider berritzen den (24.000 ordutan piztuta egon eta gero) | Berritze Kostua (€) | Kostua guztira (€) (25.000 ordutan piztuta) |
|--------------------------|-------------------------------|------------------------------|---|---------------------|---|
| Lanpara halogenoa | | | | | |
| 35 | 1,61 | 4.000 | 6 | 9,66 | 11,27 |
| LED lanpara | | | | | |
| 6,3 | 6,99 | 25.000 | 0 | 0,00 | 6,99 |

Lanpara halogenoa, LED bakarrarekin alderatuta, 6 bider aldatu behar izatearen kostua aintzat hartzen baduzu, ikusiko duzu, nahiz eta teknologia bat bestearekin alderatuta 5,38 € garestiagoa izan, LED lanparak 4,28 € aurreztuko dizkizula mantentze-lanetan!

Zergatik ez duzu kalkulatzeko zenbat lanpara aldatu beharko dituzun zure etxean datozen urteetan? Zer iruditzen teknologia iraunkor eta eraginkorrago bat aukeratzea?